


LHKren txostena. EAEko 2019ko lan jaien egutegi ofizialari buruzko dekretu proiektua

LAN
HARREMANEN
KONTSEILUA
CONSEJO DE
RELACIONES
LABORALES



LAN HARREMANEN KONTSEILUAREN TXOSTENA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO 2019 URTERAKO LAN JAIEN EGUTEGI OFIZIALA ONARTZEKO DEN DEKRETU PROIEKTUARI BURUZKOA

Aurrekariak

2018ko otsailaren 6an Kontseilu honen egoitzan Eusko Jaurlaritzako Lan eta Justizia Sailak prestatu duen Dekretu proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoko 2019 urterako lan jaien egutegi ofiziala onartzeko dena, sartu da.

Aipatutako Saileko Lan eta Gizarte Segurantzako Zuzendaritzak testu hori bidali du Kontseilu honetara, Lan Harremanen Kontseiluari buruzko otsailaren 23ko 4/2012 Legeko 3.a artikulua xedatutakoa betetz, Kontseiluak derrigorrezko txostena egin dezan.

Gogoeta orokorrak

Dekretu proiektu honek 2019 urterako Euskal Autonomia Erkidegoko lan jaiak ezartzen ditu, jai horiek arautzen dituen 2001/1983 Errege Dekretuan finkatutako jarraibideen markoan, ezarri ere.

Aipatutako Errege Dekretuak Estatuaren eremurako lan jaiak ezartzen ditu. Autonomia erkidegoek ezin alda ditzakete horietako batzuk. Beste batzuk, berriz, aldatu egin daitezke eta dagokion autonomia erkidegoak tradizioz berezkoak dituen beste batzuek ordeztu.

2001/1983 Errege Dekretuak autonomia erkidegoei ematen dien aukeratu ahal izateko marjina hau, honako modu honetara zehazten da:


- a) Martxoaren 19a ala uztailearen 25a aukeratu ahal izatea.
- b) Errege Dekretuko 45. artikuluko lehen zenbakiko d) atalean aipatzen diren jaiak (Ostegun Santua, urtarrilaren 6ko Jaunaren Epifania, eta martxoaren 19ko San Jose edo uztailearen 25eko Santiago Apostolua), tradizioz berezkoak dituzten beste batzuek ordezte.
- c) Astelehenera eramaten diren jai nazionalak autonomia erkidegoetako jaiak ordezte; hau, egutegi ofizialean ezarritako jai igandean suertatzen denean gertatzen da.

Berariazko gogoetak

Lan Harremanen Kontseiluak txostena egiteko bidaltzen den Dekretu proiektuan ezartzen den 2019rako lan jaien egutegia,

LHKren txostena. EAEko 2019ko lan jaien egutegi ofizialari buruzko dekretu proiektua

LAN
HARREMANEN
KONTSEILUA
CONSEJO DE
RELACIONES
LABORALES



aipatutako Errege Dekretuan adierazitako parametroen arabera eta parametro hauek eskaintzen dituzten aukeren barruan egin da.

Dekretu proiektuak Euskal Autonomia Erkidegoko 2019rako berariazko jaitzat, apirilaren 22ko Bizkonde Pazkoako Astelehena da ezartzen du eta jaitzat ematen ditu bai martxoaren 19ko San Jose eta bai uztailaren 25eko Santiago Apostolua.

Jai autonomiko hauek ezartzeko erabiltzen diren jai nazionalak urtarrilaren 6ko Jaunaren Epifania eta abenduaren 8ko Sortze Garbia dira, biak ere igandean suertatzen direnez, hurrengo astelehenera eramaten baitira.

Beraz, txosten honetako gogoeta orokorretan azaldu diren marjina jakinen barruan 2001/1983 Errege Dekretuak administrazio autonomikoei ematen dien jai nazionalak autonomia erkidegoko jaietz ordezteko aukera erabili egiten da.

Irizpena

Lan Harremanen Kontseiluaren Txosten Batzordea 2018ko otsailaren 12an bildu da, 2019 urterako lan jaien egutegia onartzeko Dekretu proiektua aztertzeko.

Aipatutako bileran, Confedebak, CCOO eta UGTk izendatutako kideek, aztertutako dekretu proiektuaren testuarekin ados daudela adierazi dute.

Beste alde batetik, LAB sindikatuaren ordezkariak adierazi dute, aurreko urteetan esan izan duten bezala eta legezketasun arrunteko gaiak alde batera utzirik, EAEko egutegian ez liratekela jaitzat agertu behar, Euskal Herriaren errealitateak arrotz dituen horiek. Zehazkiago, urriaren 12ko Espainiako jai nazionala eta abenduaren 6ko Espainiako Konstituzioaren eguna jaitzat agertzearen kontra daude. Eta Euskal Herriaren kultura errealitate eta helburu politikoekin adosago dauden jaiegun eta ospatzeko arrazoiez ordezteko proposatzen dute.

Bilbo, 2018ko otsailaren 12a